

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA
BILBON: EBALUAZIO-PROPOSAMENA
(2014-2022 epealdia)



EUSKARA ETA HEZKUNTZA SAILA

2022ko martxoa

AURKIBIDEA

1. SARRERA	2
2. EKINTZA PLANA OSATZEN DUTEN PROGRAMEN DESKRIBAPENA	3
1.1. EUSKARAREN JABEKUNTZA	4
Irakaskuntza	4
Euskalduntzea eta alfabetatzea	6
2.2. EUSKARAREN ERABILERA	7
Administrazioa	7
Arlo sozio-ekonomikoa	8
Aisia eta kirola	8
2.3. EUSKARAREN ELIKADURA	10
Liburugintza.....	10
Kulturgintza	11
Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea	11
Publizitatea.....	12
Informazioaren eta komunikazioaren teknologia.....	12
2.4. EUSKARAREN ALDEKO MOTIBAZIOA	13
Sentsibilizazioa eta motibazioa	13
2.5. EUSKARAREN ZABALKUNDEA	15
Barruko proiektzioa	15
3. EKINTZA PLANAREN EBALUAZIO-PROPOSAMENA	16
3.1. ADIERAZLEAK: DATU KUANTITATIBOAK	16
Euskararen jabekuntza.....	17
Euskararen erabilera	18
Euskararen elikadura.....	19
Euskararen aldeko motibazioa.....	19
3.2. ADIERAZLEAK: DATU KUALITATIBOAK	20

1. SARRERA

Azken 30 urteotan asko aldatu da euskararen egoera Bilbon, bai herritarren artean zein udal administrazioan. Hainbat izan dira aldaketa horretan eragina izan duten faktoreak, besteak beste:

- Hezkuntza-sistemako murgiltze ereduaren bidez, etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasleei aukera paregabea eskaini zaie, ikasgeletan behinik behin, euskara ongi ezagutzeko eta barruko bizitza euskaraz egiteko.
- Euskararen biziberritzean ezinbestekoak izan dira euskaltegiak, milaka pertsonak ikasi dutelako euskara euretan.
- Euskal kultura, euskal giroa eta euskara bultzatzea eta indartzea helburu duten herri-mugimenduak eta elkarteak areagotu dira.

Horren haritik, Bilboko Udalean euskararen aldeko planak bultzatu dira, euskararen erabilera normalizatzeko eta sustatzeko, bai udalerrri mailan, baita udal administrazioaren jardunean ere. Helburu nagusi horiek gauzatzeko, lanabes nagusi hauek ditu Udalak:

- Bilboko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP).
- Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.

Euskara Sustatzeko Ekintza Planari dagokionez, Bilboko Udaleko Gobernu Batzordeak 2014ko otsailaren 12an onartu zuen 2014-2017 epealdirako. Plan horren indarraldia bukatuta, Euskara eta Hezkuntza Sailaren ustez beharrezkoa zen epe hori luzatzea, gauzatutako neurri eta ekintzen bidez lortutako eragina baloratu ahal izateko; eta ondoren plan berri bat egiteko.

Hala bada, kontuan izanik ESEPen helburu estrategikoek indarrean jarraitzen zutela, hau da, ildo berean lanean jarraitu beharra zegoela, Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren indarraldia 2022ra arte luzatzea proposatu zuen Euskara eta Hezkuntza Sailak, eta Gobernu Batzordeak onartu egin zuen.

Momentu honetan Bilboko Udalak indarrean duen Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), beraz, 2018-2022 epealdiari dagokio. Horren bitartez, euskararen erabilera indartzea helburu duten askotariko ekimenak egiten dira eta bilbotarren hizkuntza-ohituretan eragina duten programak gauzatzen dira, euskara erabiltzeko motibazioa eta sentsibilizazioa landuz, euskara ikasteko edota ezagutza sakontzeko baliabideak eskainiz, baita euskara erabiltzeko espazioak sortuz eta ekintzak antolatuz ere.

Ekintza Planaren indarraldia 2022ko abenduaren 31ra artekoa da. Horiek horrela, amaitzearen den planaren balorazioa egiteko momentua iritsi da. Izan ere, plangintza berria diseinatzen hasteko, ezinbestekoa da orain arte egindakoaren ebaluazioa egitea; egindako ibilbidea kontuan hartzea, egindako pausoak aztertzea, hutsuneak eta hobetu beharrekoak identifikatzea. Azken batean, hausnarketa prozesu horrek gaur egungo egoeraren balorazioa eta diagnosis egitea

eskatzen du, ikuspegi kuantitatibo eta kualitatiboa erabiliz eta datuen irakurketatik abiatuta. Etorkizunari begirako plana diseinatzerako orduan, helburuak ondo identifikatzeko ezinbestekoa da egindakoa arakatzea.

Hortaz, dokumentu honetan, batetik, gaur egun Bilbon abian diren programen gaineko deskribapen laburra egiten da; bestetik, programa horien balorazioa egiteko proposamena dago, ESEP planaren testuinguruan.

2. EKINTZA PLANA OSATZEN DUTEN PROGRAMEN DESKRIBAPENA

Bilboko Udalak bat egin zuen Eusko Jaurlaritzak Euskararen Aholku Batzordearekin batera EAerako diseinatutako planaren helburuekin, Bilbon euskararen normalizazioa esparru guztietara zabaltzeko programak eta ekimenak biltzen zituen tresna nagusi gisa.

Hauek izan ziren plan horretan ezarritako hiru helburu estrategikoak:

- Euskararen jabekuntza: Euskararen jabekuntza edo eskuratze-prozesuan hiru esparru bereiz daitezke: familia bidezko transmisioa, alde batetik; euskarazko irakaskuntza, bestetik; eta, azkenik, helduen euskalduntzea edota euskalduntze-alfabetatzea.
- Euskararen erabilera: Euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreak honako hauek dira: hiztunen kopurua; hiztunek euskaraz egiteko duten gaitasuna edo erraztasuna eta aukerak; inguruan harreman-sare euskalduna izatea, hots, familian, lagunartean, auzoan, kalean, sarean eta esparru formalagoetan solaskide euskaldunak izatea; eta, azkenik, hizkuntzen arteko oreka eta berdinkidetasun soziala helburu duen kontsentsuak elikatzen duen hizkuntzarekiko atxikimendua.
- Euskararen elikadura: Hizkuntza eroso eta erraz hitz egin eta erabiliko bada, elikatu egin behar da, euskarazko edukien bidez eta horiek sortzen dituzten euskal eragileen bidez (hedabideak, argitaletxeak, ikastetxeak, zientzia-eragileak, etab.).

Hiru helburu horietan lagungarri izan zitezkeen bi zehar-lerro ere jaso ziren planean:

- Euskararen aldeko motibazioa
- Euskararen zabalkundea

Helburu horiek lortzeko, Bilboko Udalak hainbat programa, kanpaina eta jarduera abian jarri zituen. Ekimen horiek guztiak, helburu estrategiko bakoitzaren arabera eta esparruka antolatuta, urtez urte gauzatzuz joan dira eta gaur egun arte egiten dira.

Hona ekarri ditugu, hain zuzen ere, abian diren programen deskribapen laburrak, horien ikuspegi orokorra izaten lagunduko digutenak.

2.1. EUSKARAREN JABEKUNTZA

EUSKARAREN JABEKUNTZA

IRAKASKUNTZA

MUNDU BAT BERTSO (Bizkaiko Bertsozale Elkarte)

- **Helburua:** euskararen ezagutzan sakontzea, gure herriaren kultura-ondarea den bertsoaritzaren bidez.
- **Hartzaileak:** Bilboko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleak.
- **Tokia:** ikastetxea.
- **Epea:** ikasturtea.

HERRI JOLASAK ETA JOKOAK (Euskal Herriko Ikastolak)

- **Helburua:** jolas- eta kirol-jardueren bitartez, ikasleei euskara bereganatzen laguntzea.
- **Hartzaileak:** Bilboko ikastetxeetako Lehenengo eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak.
- **Tokia:** ikastetxea.
- **Epea:** ikasturtea.



<p style="text-align: center;">ZINEA EUSKARAZ (Tinko eta Irudi Biziak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: gaurkotasuneko nazioarteko hainbat film euskaraz ikustea eta material didaktikoen bidez lantzea; gizarte-bizitzako beste esparru batzuk aprobetxatzea eta sustatzea euskara eskuratzeko eta euskara erabil dezaten bultzatzeko. - Hartzaileak: Bilboko ikastetxeetako Lehengo eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak. - Tokia: ikastetxeko aretoa edo zinema aretoa. - Epea: ikasturtea.
<p style="text-align: center;">BILBOKO ESKOLETAN EUSKARA SUSTATZEA (BIGE-Bizkaiko guraso elkarteak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: ume eta gurasoen artean euskararen erabilera areagotzea, euskara aisialdian bultzatzea eta euskal ekoizpenak zabaltzea. Hainbat motatako ekintzak eginez, gurasoak euskalduntze prozesuan inplikatu gura dira. - Hartzaileak: umeak eta gurasoak. - Tokia: ikastetxea, eskola ordutik kanpoko jardunaldia. - Epea: ikasturtea.
<p style="text-align: center;">DEUSTUALDEKO ARNASGUNEAK (Deustuko Berbaizu euskara elkarteak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: Deustualdeko haur eta gazteak eleaniztunak izatea. Horrez gain, hizkuntza-ohituretan ere eragin gura da, gurasoentzako sentsibilizazio-saioak, familiei eta gazteei begirako jarduerak eta lantegiak eta guraso elkarteekin elkarlana eta aholkularitza bultzatuz. - Hartzaileak: Deustualdeko haur, gazte eta gurasoak. - Tokia: ikastetxea, eskola ordutik kanpoko jardunaldia. - Epea: ikasturtea.
<p style="text-align: center;">KULTURA DESBERDINAK EUSKARAZ BIZI (Uztarri Kultur Elkarteak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: esparru ez-formalean euskaraz hitz egiteko ohitura hartzea, betiere jolasten, abesten edo orotariko ekintzak egiten. - Hartzaileak: herri-ikastetxe bateko 6 eta 11 urte bitarteko ikasleak. - Tokia: ikastetxea, eskola ordutik kanpoko jardunaldia. - Epea: ikasturtea.

ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK

(1. ildo. Eskola munduko programei laguntza)

- **Helburua:** Bilbon irakaskuntzaren eremuan euskararen erabilera sustatzea eta normalizatzea helburu duten proiektuak eta jarduerak gauzatzeko dirulaguntza ematea.

- **Hartzaileak:** Bilboko ikastetxeak, ikasleen guraso-elkarteak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuak.

- **Epea:** urte hasiera.

EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA

MINTZAPRAKTIKA TALDEAK (AEK)

- **Helburua:** parte-hartzaileen jariora hobetzea, euskaraz egiteko ohitura sortu edo indartzea eta harreman-sareak sortzea. Lau-sei lagunek osatutako taldeak dira eta horietako bat, gutxienez, euskaldun osoa izaten da. Besteak euskara hobetu nahi dutenak izango dira. 2018. urtera arte *Mintzakide* izena zuen.

- **Hartzaileak:** euskaraz egin nahi duten 16 urtetik gorako herritarrak.

- **Epea:** ikasturtea.



EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK

- **Helburua:** euskara ikasteko dirulaguntza ematea deialdiko baldintzak betetzen dituzten bilbotarrei.

- **Hartzaileak:** 3 talde (gurasoak, begiraleak eta errenta txikiko pertsonak).

- **Epea:** apiril-maiatz.

2.2. EUSKARAREN ERABILERA

EUSKARAREN ERABILERA	
ADMINISTRAZIOA	
UDALAREN ERABILERA PLANA	<ul style="list-style-type: none">- Helburua: euskararen erabilera normalizatzea Bilboko Udalean. VI. plangintzaldiari (2018-2022) dagokion plana dago abian. Plangintzaldi honetan euskararen erabilera modu eraginkorragoan bideratu nahi izan da, euskararen kudeaketa Udalaren kudeaketa orokorraren barruan txertatuz. 27 euskaratalde bereizi dira zuzendaritza eta zuzendariordetzetan antolatuta. Euskara talde bakoitzarekin lanean aritzeko asmoa dago, hizkuntzaren normalizaziorako neurriak har ditzagun.- Hartzaileak: Udaleko langileak.- Epea: 2022ko abenduaren 31ra arte.
	
TREBAKUNTZA (Labayru Fundazioa)	<ul style="list-style-type: none">- Helburua: alde batetik, Udal kargudun eta arduradunei ahozko jariora hobetzeko eskolak eskaintzea, udalaren izenean jardutean erraztasun handiagoa izan dezaten. Bestetik, Udaleko langileei euskarari lotutako trebakuntza eskaintzea, euren hizkuntza-gaitasuna eta konfiantza handitzeko.- Hartzaileak: Udal kargudun eta arduradunak, eta udal langileak.- Epea: urte amaiera.
BILBAOEUSKARAZ.BILBAO.EUS WEB ORRIA	<ul style="list-style-type: none">- Helburua: web-orrian Bilboko Udalaren, eta bereziki, Euskara Zuzendariordetzaren euskarazko eskaintza eta araudia herritar guztien eskura jartzea.- Hartzaileak: herritarrak.- Epea: urte osoa.

ARLO SOZIO-EKONOMIKOA

BIRIBILKO (Siadeco)



- **Helburua:** hiriko merkataritza-sektorean euskara normaltzeko ahalegina egitea. Hauek dira eskainitako zerbitzuak: euskara komertzialeko oinarrizko ikastaroa; hizkuntza baliabideak, merkataritzan euskara sustatzeko kanpainak eta aholkularitza.

- **Hartzaileak:** hiriko merkatariak.

- **Epea:** urte osoa.

AISIA ETA KIROLA

HARRAPAZANK (Topagunea)



- **Helburua:** euskararen aldeko jarrera bultzatzea eta euskararen erabilera areagotzea, gazteen gustuko tailer eta bestelako jarduera erakargarri eta berritzaileen bidez.

- **Hartzaileak:** Bilboko 10 eta 18 urte bitarteko gazteak.

- **Epea:** urteko lehen hileak.

<p style="text-align: center;">IKUSI ETA IKASI (Topagunea)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: Bilboko haurrei euskaraz jostatzeko aukera eskaintzea Bilboko barruti guztietan, euskararen erabilerarako gunek berriak eskaintzeko helburuarekin, eta tailerren programazio bereziarekin euskarazko familia-harremana sortzen laguntzeko. - Hartzaileak: Bilboko 4 eta 10 urte bitarteko haurrak eta gurasoak. - Epea: urteko lehen hileak.
<p style="text-align: center;">DARABILBO (AEK)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: aisialdian euskaraz hitz egin ahal izateko aukera gehiago eskaintzea, auzoetan antolatutako zenbait ekintzen bitartez. - Hartzaileak: ikasleak, ikasle ohiak eta, oro har, euskaraz hitz egiten duten pertsonak eta beste pertsona batzuekin jardun nahi dutenak. - Epea: hilero, irailtik ekainera.
<p style="text-align: center;">ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK (2. ildoak. Euskararen erabilera sustatzea)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: laguntza ekonomikoak, batetik, euskararen erabilera normalizatzeko helburu nagusia duten sail espezifikokoak dituzten elkarte eta pertsona juridikoentzat, gizarte-bizitzaren eremu guztietan programak eta jarduerak euskaraz egiteko; eta, bestetik, euskararen normalizaziorako orotariko elkarteentzat. - Hartzaileak: euskararen erabilera normalizatzea helburu nagusizat duten elkarteak eta pertsona juridikoak. - Epea: urte hasiera.
<p style="text-align: center;">LITERATURA ETA MUSIKA EUSKARAZ (Arriaga)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: Arriaga Antzokian egiten diren ekintzekin euskara sustatzea. Ekintza mota bi daude: batetik, euskaraz egiten diren musika eta literatura ekitaldiak (poesia, kontzertu txikiak...); bestetik, euskarazko antzerkien aurretik obra eta egileari buruz egiten diren euskarazko aurkezpenak. Horien bidez, aisialdia eta kultura euskaraz eskaintzen zaie herritarrei. - Hartzaileak: herritarrak. - Epea: antzokiaren urteko denboraldia.
<p style="text-align: center;">LORALDIA (Loraldia)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua: euskarazko kultur ekoizpenaren erakusleho izatea. Diziplina artistiko asko hartzen ditu kontuan; hala nola, antzerkia, kantua, bertsolaritza, dantza, hitzaldiak, kabareta, komikigintza, literatura, margogintza, musika, rol-jokoak, esperientzia digitala eta zinema. - Hartzaileak: herritarrak. - Epea: martxoa.

2.3. EUSKARAREN ELIKADURA

EUSKARAREN ELIKADURA	
LIBURUGINTZA	
<p>KLASIKOEN IRAKURRALDI JARRAITUA (Bilbo Zaharra Euskaltea)</p> 	<p>- Helburua: euskarazko irakurketa eta lanak sustatzea. Euskarazko literatur lan klasiko baten irakurketa publikoa. Egun batez eta modu jarraituan egiten da. Pertsona publiko nahiz pribatuek bideratzen dute.</p> <p>Azken urteetan hauek irakurri dira:</p> <ul style="list-style-type: none">• Bernat Etxepare, <i>Linguae Vasconum Primitiae</i>, 2021.• Mariasun Landa, <i>Ipuin Hautatuak</i>, 2020• Anjel Lertxundi, <i>Otto Pette</i>, 2019 <p>- Hartzaileak: herritarrak.</p> <p>- Epea: ekaina.</p> <p>→ <i>Bernat Etxepare, Linguae Vasconum Primitiae.</i></p>
<p>ZENBAIT ARGITALPEN</p>	<p>- Helburua: euskal kulturari eta literaturari buruzko lanak argitaratzea edo argitaratzen laguntzea. Eredutzat azken argitalpenak:</p> <ul style="list-style-type: none">• <i>Mailu batekin: biola batekin</i> (Gabriel Aresti 1962), Bilboko Udala, 2016• <i>Gomutan. Bilboko historiaren atal ezezagunak</i>, Hektor Ortega. Ilustrazioak: Ane Pikaza, Erroa argitaletxea. Bilboko Udala, 2018• <i>BILBO</i>, Lutxo Egia. Marrazkiak: Asisko Urmeneta eta Dom. Elkar (<i>Arian irakurgai mailakatuak</i>), 2019• <i>Bilbon hara-hona</i>, Labayru Fundazioa. Bilboko Udala, 2020.• <i>Bilbon dabil Gabriel Aresti</i>, Karmelo Landa, Erroa argitaletxea. Bilboko Udala, 2021.• <i>Bendejerak. Sorotik plazara</i>. Labayru Fundazioa. Bilboko Udala, 2021. <p>- Hartzaileak: herritarrak.</p> <p>- Epea: urte osoa.</p>

KULTURGINTZA

MIKOLETA IPUIN LEHIAKETA



- **Helburua:** euskaraz irakurtzea eta idaztea sustatzeko ipuin lehiaketa Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat.

- **Hartzaileak:** Bilboko ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasleak.

- **Epea:** ikasturtea.

NONTZEBERRI

(Suspergintza)

- **Helburua:** euskarazko kultur programazioa zabaltzea.

- **Hartzaileak:** herritarrak.

- **Epea:** ikasturtea.

CORPUS-PLANGINTZA ETA EUSKARAREN KALITATEA

LABAYRU FUNDAZIOAREKIN HITZARMENA

- **Helburua:** hizkuntzaren eta kulturaren ikuspuntutik interesagarriak diren gaiak lantzea. Bi adibide:

- Bilboko euskararen oraintsuko historiaren ezagutza zuzena eta sakona biltzea.
- Bilboko kaleen toponimiari buruzko ikerketa.

- **Hartzaileak:** herritarrak.

- **Epea:** urte osoa.

EUSKALTZAINDIAREKIN HITZARMENA

- **Helburua:** Onomastika, Jagonet eta Azkue Bibliotekako zerbitzuen hizkuntza- eta informazio-aholkularitzan laguntzea.

- **Hartzaileak:** herritarrak.

- **Epea:** urte osoa.

AZKUE FUNDAZIOAREKIN HITZARMENA

- **Helburua:** laguntza ekonomikoa eskaintzea, euskara modu berritzailean sustatzeko, proiektu digitalak garatzeko eta harreman-sareak handitzeko, herritarrei ematen dieten zerbitzuan.

- **Hartzaileak:** herritarrak.

- **Epea:** urte osoa.

PUBLIZITATEA

PUBLIZITATEA

(11 telebista, Argia, Berria, Bilbo Hiri Irratia, Bizkaia Irratia, Bizkaie, Europa Press, Suspergintza, Prest, Uriola, Zorrotz morrotz)



- **Helburua:** Bilboko Udalaren eta Euskara Zuzendariordetzaren euskarazko publizitatea hedabideetan argitaratzea, udalari eta euskarari ikusgarritasuna emateko helburuz.

- **Hartzaileak:** herritarrak.

- **Epea:** urte osoa.

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA

BTUBER IZARREN BILA

(Azkue Fundazioa)



- **Helburua:** jarduera digitaletan euskararen erabilera sustatzea.

- **Hartzaileak:** Bilboko 12 eta 13 urte bitarteko gazteak.

- **Epea:** Aste Santua, ekaina eta Gabonak.

2.4. EUSKARAREN ALDEKO MOTIBAZIOA

EUSKARAREN ALDEKO MOTIBAZIOA	
SENTSIBILIZAZIOA ETA MOTIBAZIOA	
EUSKARALDIA	<ul style="list-style-type: none">- Helburua: herritarren hizkuntza ohiturak aldatuta, euskararen erabilera handitzea. Helduen aktibazioa du oinarri, eta ariketa egin ahal izateko gutxieneko baldintza euskara ulertzea da. Bi ekitaldi egin dira; lehena, 2018an egin zen eta fokua norbanakoengan jarri zen; bigarrena, 2020an egin zen eta entitateei ere ariketan parte hartzeko gonbidapena egin zitzaion, euren eremuetan hizkuntza ohiturak aldatzeko urratsak ematen has zitezen.- Hartzaileak: herritarrak.- Epea: bi urtero.
EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA	<ul style="list-style-type: none">- Helburua: Bilboko herritarren eta erakunde publiko eta pribatuen artean euskara balio positibo eta modernoekin identifikatzeko ekimenak garatzea, motibazioarekin lotutako alderdiak landuz.- Hartzaileak: herritarrak.- Epea: abenduaren 3a.
EMAN GILTZA (Alkarbide)	<ul style="list-style-type: none">- Helburua: euskara transmititzeko eta gurasoen kezka, zalantza edota beldurrak uxatzeko gomendioak, aholkuak, tresnak eta baliabideak eskaintzea.- Hartzaileak: aurreko urtean umea izan duten gurasoak.- Epea: urte hasiera.
NAHI DUDALAKO (Alkarbide)	<ul style="list-style-type: none">- Helburua: www.nahidudalako.com web-orriaren bidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleei Batxilergoa eta Lanbide Heziketa euskaraz ikasten jarraitzeko aukeren berri ematea.- Hartzaileak: DBHko 3. eta 4. mailako ikasleak.- Epea: matrikulazio aldia.

EUSKALTEGIEN MATRIKULAZIO KANPAINA

Este año Dani y Mario harán juntos los deberes, porque Mario se ha matriculado en el euskaltegi.

EUSKARAZ
gehiago
gara

Para hablarlo en casa y ayudar a tus hijos e hijas con los deberes.

MATRIKULA ZAITEZ
BILBOKO EUSKALTEGIETAN
bilbaeuskaraz.bilbao.eus



- **Helburua:** euskara ikasi nahi duten pertsonen profilak ikusaraztea, eta herritarrak euskara ikastera animatzea.

- **Hartzaileak:** herritarrak.

- **Epea:** iraila.

BETIKOA. GERTUKOA. ESKATU EUSKARAZ, ESKAINI EUSKARAZ.

- **Helburua:** tokiko merkataritzan euskararen erabilera sustatzea eta merkatariak eta bezero euskaldunak aktibatzea.

- **Hartzaileak:** herritarrak.

- **Epea:** azaro-abendu.

2.5. EUSKARAREN ZABALKUNDEA

EUSKARAREN ZABALKUNDEA	
BARRUKO PROIEKZIOA	
AZKUE FUNDAZIOA	<ul style="list-style-type: none">- Helburua: Azkue Fundazioari euskara zabaltzeko eta modu berritzailean erabiltzen laguntzeko programa, proiektu digitalak garatuz eta harreman-sareak zabalduz.- Hartzaileak: herritarrak.- Epea: urte osoa.
BERBAGUNEA (Ulibarri Euskaltegia)	<ul style="list-style-type: none">- Helburua: Euskararen ezagutzari eta erabilerari lotutako balio erantsiak sustatzea, Bilboko eremu euskalduneko hainbat ordezkariaren arteko topaketaren bidez.- Hartzaileak: herritarrak.- Epea: azaroa.
	

3. EKINTZA PLANAREN EBALUAZIO-PROPOSAMENA

Ekintza Plan honen tankerako planak honako 3 fase hauei jarraituz garatu ohi dira: planaren definizioa, planaren inplementazioa eta planaren ebaluazioa. Puntu honetan, hirugarren fase horri heldu nahi diogu, eta 2014-2022 epealdiari dagokion ebaluazioa nola bideratu dezakegun aipatuko dugu, hortik ondorioak atera eta hurrengo plana diseinatu ahal izateko. Izan ere, datozen urteetarako lan ildo nagusiak zehazteko beharrezkoa da hausnarketa egitea, batetik, egoera soziolinguistikoaren jabe egiteko, eta, bestetik, hobetzeko alderdiak zein diren identifikatzeko.

Plana diseinatu zenean, helburuen progresioa islatuko zuten adierazleak ezarri zituen Euskarako Zuzendaritzaordetzak, helburu estrategiko bakoitzean eta zehar-lerroetan. Adierazle horiek erreferentziazko datuak dira planak bultzatutako programak eta ekintzak nahiz erabilitako baliabideak aztertzeke, hau da, planaren betetze-maila neurtzeko.

Programa horien bilakaera zein izan den jakiteko eta planean aurreikusitakoak zein neurritan bete diren aztertzeke eta argazki orokorra egiteko, kontuan hartuko dira bai datu kuantitatiboak, baita informazio kualitatiboa ere. Zenbakiak ematen duten datu hutsa hausnarketarekin, iritziekin eta era horretako balorazioekin osatu nahi da, alegia.

Nolanahi ere, esan behar da plana abian daukagun urteetan etenik bako jarraipena egiten ari garela, programa eta ekimen bakoitzari buruz definituriko lorpen-adierazleetatik abiatuta, helburuak betetzen direla ziurtatzeko. Eta behar izan den kasuetan, zuzenketak proposatu eta aldaketak egin izan dira. Azken batean, berrikuspen horien bitartez, programen eraginkortasuna eta kalitatea bermatu nahi izan dugu.

Horrez gain, Udalak lankidetzan dihardu beste hainbat erakunde eta elkarterekin. Haiekin batera antolatzen ditu kanpainak eta babesten ditu askotariko ekimenak, *Euskaraldia*, adibidez, edota "Eskatu euskaraz, eskaini euskaraz" udalerrri askoren artean bultzatutako merkataritzarako leloa, besteak beste. Horiek kasuan kasuko erakundeak aztertu eta baloratuko ditu.

3.1. ADIERAZLEAK: DATU KUANTITATIBOAK

Ondorengo tauletan jaso dira helburuz helburu eta programaz programa jasotzen diren zenbakizko adierazleak. Datu horiek, behinik behin, ebaluazioan aztertuko dira.

EUSKARAREN JABEKUNTZA

IRAKASKUNTZA

MUNDU BAT BERTSO (Bizkaiko Bertsozale Elkarteak)	<ul style="list-style-type: none">• Ikastetxe kopurua• Talde kopurua• Saioen ordu kopurua
HERRI JOLASAK ETA JOKOAK (Euskal Herriko Ikastolak)	<ul style="list-style-type: none">• Saio kopurua• Ikastetxe kopurua
ZINEA EUSKARAZ (Tinko eta Irudi Biziak)	<ul style="list-style-type: none">• Ikastetxe kopurua• Ikusle kopurua (LH eta DBH)• Film kopurua
BILBOKO ESKOLETAN EUSKARA SUSTATZEA (BIGE-Bizkaiko guraso elkarteak)	<ul style="list-style-type: none">• Ikastetxe kopurua• Parte-hartzaile kopurua
DEUSTUALDEKO ARNASGUNEAK (Deustuko Berbaizu euskara elkarteak)	<ul style="list-style-type: none">• Ikastetxe kopurua• Parte-hartzaile kopurua
KULTURA DESBERDINAK EUSKARAZ BIZI (Uztarri Kultur Elkarteak)	<ul style="list-style-type: none">• Talde kopurua• Parte-hartzaile kopurua
ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK (1. ildoak. Eskola munduko programei laguntza)	<ul style="list-style-type: none">• Eskaera kopurua• Banatutako diru-kopurua
EUSKALDUNTZEA ETA ALFABETATZEA	
MINTZAPRAKTIKA TALDEAK (AEK)	<ul style="list-style-type: none">• Talde kopurua• Parte-hartzaile kopurua
EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK	<ul style="list-style-type: none">• Eskaera kopurua• Onuradun kopurua (sexuaren arabera)

EUSKARAREN ERABILERA	
ADMINISTRAZIOA¹	
TREBAKUNTZA (Labayru Fundazioa)	<ul style="list-style-type: none"> • Parte hartu duen langile kopurua • Ikastaro kopurua • Inkesta egiten zaie: autoebaluazioa, barruko kudeaketa, irakaslea...
ARLO SOZIO-EKONOMIKOA	
BIRIBILKO (Siadeco)	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastaroetan parte-hartzaile kopurua • Programako establezimendu kopurua
AISIA ETA KIROLA	
HARRAPAZANK (Topagunea)	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile kopurua
IKUSI ETA IKASI (Topagunea)	<ul style="list-style-type: none"> • Programan egindako inkesta: gogobetetzea... • Parte-hartzaile kopurua
DARABILBO (AEK)	<ul style="list-style-type: none"> • Ekitaldi-kopurua • Parte-hartzaile kopurua
ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZAK (2. ildo. Euskararen erabilera sustatzea)	<ul style="list-style-type: none"> • Eskatutako dirulaguntza-kopurua • Banatutako diru-kopurua
LITERATURA ETA MUSIKA EUSKARAZ (Arriaga)	<ul style="list-style-type: none"> • Ekitaldi-kopurua
LORALDIA (Loraldia)	<ul style="list-style-type: none"> • Ekitaldi-kopurua • Ikusle-kopurua

¹ Bilboko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana (VI. plangintzaldia) 2022ko abenduaren 31n amaituko da, eta plana ebaluatzeko lanketa egingo da.

EUSKARAREN ELIKADURA	
LIBURUGINTZA	
KLASIKOEN IRAKURRALDI JARRAITUA (Bilbo Zaharra Euskaltegia)	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile kopurua
KULTURGINTZA	
MIKOLETA IPUIN LEHIAKETA	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile kopurua • Parte hartzen duen ikastetxe-kopurua
PUBLIZITATEA	
PUBLIZITATEA (11 telebista, Argia, Berria, Bilbo Hiri Irratia, Bizkaia Irratia, Bizkaie, Europa Press, Suspergintza, Prest, Uriola, Zorrotz morrotz)	<ul style="list-style-type: none"> • Hedabide-kopurua • Komunikazio elementu-kopurua
INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIA	
BTUBER IZARREN BILA (Azkue Fundazioa)	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile kopurua

EUSKARAREN ALDEKO MOTIBAZIOA	
EMAN GILTZA (Alkarbide)	<ul style="list-style-type: none"> • Bidalketa-kopurua
NAHI DUDALAKO (Alkarbide)	<ul style="list-style-type: none"> • Bidalketa-kopurua

3.2. ADIERAZLEAK: DATU KUALITATIBOAK

Ebaluazio egokia egingo badugu, nahitaezkoa da datu kuantitatiboak balorazio kualitatiboaz osatzea. Garrantzitsua da, batez ere estrategikoak diren esparruetan, parte hartu duten herritar eta arduradunekin zenbakiak ematen duten informazioa kontrastatzea eta baloratzea, hau da, horiek interpretatu eta gogoeta bat bideratzea. Horri esker, esparru bakoitzean egon daitezkeen aukerak, mehatxuak, ahuleziak eta indarguneak identifikatu ahal izango dira.

Orain arte ere ekintza planeko hainbat proiektutan eskuratu izan da informazio kualitatiboa, gehien batean inkesten bidez. Teknika hori erabili da, adibidez, udaleko langileei eskaintzen zaien trebakuntza programan; izan ere, ikastaro bakoitzaren amaieran, asebetetze-maila ezagutzeko balio duen inkesta pasatzen zaie ikasleei, haiek eman nahi duten balorazio-iritzia jasota gera dadin.

Bestalde, "Ikusi eta ikasi" programako parte-hartzaileek jardueren inguruan duten iritzia emateko aukera izaten dute, galdetegi bat beteta. Parte-hartzaileen esperientziaren bidez, jarduera horren funtzionamenduari buruzko informazioa identifikatu da.

Horrez gain, euskararekin lotuta herritarrei zuzendutako zerbitzuen agiria eguneratzeko ikerketa bat egin zuen Udalak 2021ean, eta Euskarako Zuzendariordetzak antolatzen dituen zenbait ekimen eta programei buruzko informazioa atera zen prozesu horretatik; izan ere, ikerketa horretan hiru esparru aztertu ziren, herritarrei begira interesgarriak izan daitezkeenak: hezkuntza, merkataritza eta aisialdia. Esparru bakoitzeko zenbait programatako bezeroei inkesta egin zitzaien eta informazio kualitatiboa jaso zen:

- Hezkuntza arloan, programa hauetako bezeroek hartu zuten parte: "Mundu bat bertso", "Mikoleta ipuin-lehiaketa", "Herri jolasak eta kirola" eta "Zinema". Haiengandik jasotako iritzien arabera, inkestatu gehienentzat egokia izan zen eremu bakoitzean eskaini zen programa-kopurua eta horien aniztasuna. Hala ere, uste zuten Udalak programa gehiago antolatu beharko lituzkeela institutueta/eskoletan, familian, kalean/auzoetan edota kirolaren munduan. Hobetu beharreko puntuen artean nabarmendu zituzten programei buruzko informazio gehiago bidaltzea eta programen epeak luzatzea, besteak beste.
- Merkataritza arloan, Biribilko programako ikastaroetan parte hartu zuten merkatariei egin zitzaien inkesta, eta era honetako balorazioak jaso ziren:

“Euskara komertzialeko oinarritzko ikastaroa” zen elkarrizketatuek gehien erabili zuten eskaintza. Programaren “Aholkularitza zerbitzua” interesgarritzat jo zuten eta ondo baloratu zuten. Jaso zuten informazioa, oro har, egokia zela uste izan zuten gehienek, baita erraza eta argia ere. Hobetzeko puntuen artean, ikastaroen ordutegiak aipatu zuten.

Horrez gain, inkestatuen iritziz, arlo honetako zerbitzuak eremu gehiagotara zabaldu beharko lirатеke; besteak beste, ostalaritzara.

- Aisialdi arloan, “Darabilbo” eta “Ikusi eta ikasi” programak hartu ziren kontuan. Horietan, inkestatuen ustez, oro har, oso interesgarriak dira eremu honetan antolatzen diren ekintzak. Hala ere, mota horretako programak eremu gehiagotan landu beharko lirатеkeela uste dute, esaterako, kirol-jardueretan.

Hala bada, esan bezala, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana indarrean daukagun epealdia amaitzear dagoela, abian jarritako ekimen eta programen emaitzak aztertu beharrean gaude eta haien eraginkortasuna neurtu. Ekintza-plan honen bidez ezarritako helburuen betetze-maila ebaluatzea nahitaezkoa da etorkizunean nondik nora jo behar dugun erabakitzeko. Epealdi berriari begira, baina, orain arte batutako datu horiez gain, beste batzuk ere jaso beharko dira ezinbestean, zer lorpen izan ditugun eta zertan sakontzea falta zaigun argituko digutenak.

Bestalde, esan barik doa hurrengo epealdirako plana ezarriko den tokiari buruzko ezaugarri soziolinguistikoak ere oso gogoan hartu beharko direla, plan berri horren bidez lortu nahi diren helburuetarako taxuzkoa izan dadin.

Horrenbestez, ekintza planaren ebaluazioak emango duen informazioa Bilboren egungo egoera soziolinguistikoarekin eta, neurri batean behintzat, sozioekonomikoarekin batera aztertzea proposatuko dugu. Plan berriaren oinarriak finkatzerakoan, beraz, hiriaren ezaugarri demografikoak eta linguistikoak aintzat hartuko dira, Bilboko biztanleriaren datu soziolinguistikoak barrutiz barruti arakatzuz.

Demografikoez gainera, beste hainbat datu ere batu beharko dira, hala nola: herritarren euskara-gaitasuna eta euskara-gaitasunaren bilakaera, hizkuntzaren erabilera-ohiturak, etxeko hizkuntzaren bilakaera, irakaskuntzako hizkuntza-ereduak eta horien bilakaera. Azken batean, informazio horrek guztiak erakutsiko digu zein izango diren hurrengo planean jarraitu beharreko lerro estrategikoak. Era berean, Bilbon garrantzi berezia hartzen duten bestelako esparruak identifikatu ahal izango dira: esparru sozioekonomikoa, kirola eta aisialdia, adibidez.

Ikerlan soziolinguistikoek erakusten dutenaren arabera, Bilboko Udalaren etorkizuneko erronka nagusietako bat, ziur asko, hizkuntzaren erabilera areagotzeko politikak bultzatzea izango da, esparru ez formalean bereziki. Horretarako nahitaezkoa deritzogu, batetik, gazteek euskararekin duten harremana lantzeari, hau da, gazteen portaerak aztertu eta euskararekiko sentimendua indartu, eurak nagusi diren esparruetan euskararen presentzia areagotzeko. Beste aldetik, bai esparru sozioekonomikoan, bai administrazioan ere euskararen erabilpena indartuko duten programak bultzatu beharra dagoela uste dugu. Orokorrean, hiztunengan eragin beharra dago. Sentsibilizazioa eta motibazioa lantzen jarraitu behar da. Jendearen borondatea indartzean datza hizkuntza biziberritzeko gakoa.